

ehbildu

Udal aurrekontuak 2025

- kokapena eta irizpide orokorrak -

I.- Testuinguru politikoa

EH Bildurentzat 2025erako aurrekontuak lantzerako abiapuntua egungo testuinguru politiko eta sozioekonomikoa da, instituzio ezberdinetan diseinatzen ditugun aurrekontuek egoera honi erantzun beharko baitiote.

Azken hamarkada hau neoliberalismo bortitzak sortutako krisi anizkoitzen baitan bizi izan ditugu, aurreko hamarkadetan lortutako eskubide sozialen erregresio progresiboan eta gizar-tearen pobretze orokortu batean itzuli den hamarkada batean murgilduta gaude. Ondorengo belaunaldien bizi baldintzak konprometituta dituen hamarkada batean hain zuzen ere. COVIDaren pandemiak, Ukrainako eta Ekialde hurbileko gerrek eskubide sozialen atzeraldia eta pobretze orokorra areagotu besterik ez dutel egin.

Era berean, ezin dugu alde batera utzi autoritarismoaren eta eskuin muturraren gorakada eta legitimazioa: Europar Parlamenturako hauteskondeek, Frantziako hauteskunde presidentzialisten eta Alemaniako herrialde batzuetako hauteskondeen emaitzak larritzekoak dira; AEBetan eztabaida politikoak duen karia ere.

Testuinguru globalean ematen diren joerak izanik, soluzio bideak globalak eta konplexuak dira. Hala ere, gure eskalan badugu zer egitekorik, eta udalek badute, beren neurrian bada ere, erronka global hauei irtenbideak pentsatu eta gauzatzea.

Hego Euskal Herrian, hauteskunde ziklo luze baten ondoko lehen aurrekontuak ditugu 2025eko hauek. Batetik, 2023ko Udal eta Foru Hauteskundeek utzi zuten mapa politikoa aintzat hartu beharra dugu, 2024ko udal aurrekontuak maneiatzeko baldintzak ezarri zituzten hauteskundeak. Bestetik, kontuan izan behar ditugu ere 2023ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak eta Madrilgo Gorteetarako hauteskundeak utzitako mapa politikoa, zein 2024ko EAEko Legebiltzarrerako hauteskundeak zabalduko agertoki politikoa. Guzti honek zehaztuko ditu aurtengo aurrekontuen lanketarako baldintzak.

EH Bildu Hego Euskal Herriko lehen indar municipalista dela azpimarratu izan dugu, eta honek da: 1412 hautetsi lortu genituen 2023ko udal hauteskundeetan, eta kurtso politikoa 150 alkatezarekin hasi dugu, besteak beste, Euskal Herriko hiri-buruzagiko alkatezarekin. Harro egoiteko arrazoi nahikoa dugu, baina harrotasunaren pareko erantzukizuna ere badugu, herri aske eta hobe bat eraikitzeko ekarpen kualitatiboa egiteko ardura, hain zuzen ere.

EH Bilduk argi du udalgintzatik egin beharreko lana: batetik, gure herriaren eraikuntzan urratsak eman behar ditugu, eta bestetik, egungo herri erronkei bestelako erantzun bat emateko, herritarren bizitza hobetzeko, lan egin behar dugu.

Ibilbide honetan bi esparru dira gakoak: gure udalgintza ulertu eta garatzeko modua, eta udalgintzatik lehentasunez landu beharreko ildo sektorialak. Hau da, udalgintza herrigilearen bidez, lehentasunezko ildo sektorial horietan politika eraldatzaileak garatzea dagokigu datozen urteetan.

Herri erresilienteak komunitarioki eraikitzen ari gara, erronka global eta kolosalen aurrean, tokiko beharrezan tokiko baliabideekin asetzeko baldintzak sortuz, eta erronka global horiei tokiko ekimenekin ahalik eta ekarpen handiena eginez.

Legegintzaldi berri honen atarian 5 herri erronka eta 17 lan ildo identifikatu genituen, eta maiatzean Durangon egin genuen Konferentzia Municipalistan 5 eremutan ezarri genuen gure politika municipalisten lehentasuna:

1. **Babes egitura sozialak**
2. **Trantsizio energetiko eta ekosoziala**
3. **Zaintza**
4. **Hezkuntza komunitateak**
5. **Kultur bilgune eta euskararen arnasguneak.**

II.- 2025eko udal eta tokiko entitateetarako aurrekontuen irizpideak

Aurrekontuen lanketa ekimen politiko gisa ulertu behar dugu, administrazio izapide edo izapide tekniko bat baino transzendentzia handiagoa du EH Bildurentzako. Herri libre, justu eta berdinzalea eraikitzen laguntzen digun tresnetariko bat da. Aurrekontuak legegintzaldiko plana exekutatzeko ekimen politikoa izango dira.

Batetik, aurreko puntuan aipatu bezala gure ildo politikoaren ispilu izan behar dutelako, lehenesten ditugun politika publikoak garatzeko (iraunkortasuna, energia trantsizioa, bioaniztasuna, aberastasunaren birbanaketa, zaintza eredu publiko-komunitarioak, etxebizitza politika sozialak, euskara eta euskal kulturaren sustapena,...). Eta bestetik, komunitatea ahaldundu eta eraikitzeko baliatu behar dugun tresna delako.

Iazko aurrekontuak legegintzaldiko lehenak izanik, legegintzaldiko planei lotuta landu genituen, aurten lanketa honi segida ematea dagokigu. Legegintzaldirako aurreikusitako planak berrikusi, egokitu eta exekutatzeko urratsak eman behar ditugu datozen hilabeteetan.

Aurrekontu prozesuan lanketa politikoaren helburu nagusiak

1. Herri burujabe bat: burujabetzan urratsak eman

Herri burujabetzan urratsak emateko erronkan bidea egin beharra dugu aurrekontuetarako lanketan, Hego Euskal Herriarentzat erabakimen gehiago eskuratzeko eta eskuratutako erabakimenean hauek sendotu eta egikaritzeko.

2. Herritarren bizitzak hobetu

Testuinguru sozioekonomiko honetan herritarren bizitzak hobetzea izan behar du ezkerreko subiranismoaren bigarren lehentasuna, arreta berezia desberdinkeria sozialetan, zaintzan eta trantsizio ekosozialean jarriz.

3. Identitate kultural eta nazionala

Hirugarrenik, Euskal Herriaren identitate kultural eta nazionala sendotzea edota biziberritzea ekimen politiko guztietan presente izan behar dugun helburua da.

4. Gobernantza komunitarioa: herri harremanak sendotu eta aliantzak eraiki

Azkenik, aurrekontuen lanketan EH Bilduren ezaugarrietariko bat presente izan behar dugu: gobernantza komunitarioa, herritarrekin, gainontzeko alderdiekin, eragile sozial eta ekonomikoekin batera gobernatzeko apustua. Aurrekontuek ere ezberdinen arteko harremanak eraiki eta sendotzeko abagunea eskaintzen digute. Beste indar politiko, eragile sozial eta sindikalekin aliantzak eraikitzeko probestu daitekeen tresna ere badira aurrekontuak.

Lan ildoak:

1. Herri burujabe bat: burujabetzan urratsak eman

Udal aurrekontuetan herri burujabetzaren alorrean eragiteko gaitasuna murriztagoa den arren, arestian aipatu bezala, EH Bildurentzat aurrekontuak ez dira instituzio batean hasi eta amaitzen den lana; baizik eta bere osotasunean landu beharreko ekimen politikoa.

Honegatik, garrantzia berezia du gure herriarentzat burujabetza gehiago lortzea aurrekontuen lanketa guztian presente izatea, bai herrietan sortu daitezkeen ekimenen eta proiektuen bidez, baita ere, beste instituzio batzuetako aurrekontuetan negoziatzeko aurkezten ditugun proiektuen bidez. Hau da, gainontzeko herrialdeekiko harremanak estutzeko proiektuak, gure lurraldea eta eskumenak mugatzen dituzten araudiak, instituzio espainiarren esku dauden lur eremu eta eraikinak berreskuratzea,...

2. Herritarren bizitzak hobetu

2.1 Berdintasun sozialaren erronka: desberdinkeria sozialak eta bizitzaren garestitzea.

2.1.1 Zerbitzu publikoen sendotzea

Ekitate baldintzetan bizi den gizarte eredu bat eraiki nahi duen herri batentzat ezinbestekoa da zerbitzu publiko duinak eskaintzea eta hauen erregularitasuna eta jarraikortasuna bermatzea, are gehiago oinarrizko beharrizanei dagokienez.

Krisi ekonomikoak ezaugarritzen duen egoera honetan, zeinetan gero eta herritar gehiagok oinarrizko beharrizanak asetzeko zailtasunak dituzten, erronka berezia dugu zerbitzu publikoak sendotu eta eskubide sozialetan aurrera egitea bultzatzen duten ekimen eta ildo politikoak txertatzeak.

Udalak herritarrengandik gertuen dauden instituzioak izanik, eskaintzen dituzten zerbitzu publikoen eraginkortasuna eta sendotasuna bermatu behar dugu. Osasungintza edota derrigorrezko oinarrizko hezkuntza bezalako oinarrizko zerbitzu publikoak kudeatzeko eskuduntzarik ez badute ere, besteak beste gizarte zerbitzuak, zaintza, haur eskolak edota harrera zerbitzuak kudeatzen dituzte, herritarren oinarrizko eskubide eta beharrizanak asebetetzea funtzio duten eskumenak.

Ekimen posibleak:

- * Gizarte zerbitzuen egonkortzea
- * Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren berregituratzea

- * Etxebizitza alorreko zerbitzu publikoen eskaintza
- * Jantoki publikoetako kalitatezko eskaintza
- * Pertsona zaurgarrienei babes egiturak
- * Lan kontratazio publikoetan eta azpikontratazioetan lan baldintza duinak bermatzea

2.1.2 **Etxebizitza**

Etxebizitza politikak herritarren etorkizuna zein bizi baldintzak determinatzen ditu, finean, bizitza proiektu bat eraikitzeke oinarria da. Egungo krisiaren testuinguruan inoiz baino onartezi-nagoa da etxebizitza negozio gisa ulertzea, modu aktiboan zein pasiboan. Etxebizitza eskubide gisa uler dadin neurri efektiboak hartu behar dira; eta beraz ezinbestean etxebizitza politikek aurrekontuetan isla izan behar dute.

Etxebizitzarekin dugun arazoari aurre egiteko instituzio maila ezberdinen arteko kooperazioa eta politika transbertsalak beharrezkoak badira ere, udalek asko dute etxebizitza arloan egiteko, eta EH Bildurentzat lehentasun bat da udaletatik etxebizitza arazoari aurre egitea. Kurtso politiko honetan herriz herri etxebizitzaren aferari aurrea hartzeko politika publikoak sustatu behar ditugu.

Ekimen posibleak:

- * Alokairua sustatzeko plana
- * Etxe hutsen plana
- * Etxe hutsen erregistroa
- * Etxebizitza publikoen sustapena
- * Eremu tentsionatu izendapena

2.1.3 **Aberastasunaren birbanaketa**

Aldi baterako eta ezohiko zerga-neurriez gain, premiazkoa da zerga-ereduari buruzko eztabaida sozial eta politiko sakon bati ekitea. Ez dugu konpartitzen indarrean dagoen fiskalitatea, ez delako ez aurrerakoa, ez justua, ezta progresiboa ere. Legegintzaldi honetan lau herrialdeetako fiskalitate eredian eragiteko helburua dugu, honela jada Gipuzkoako Batzar Nagusietan fiskalitate berri baterako oinarriak ezartzen dituen akordio bat erdietsi dugu EAJ, PSE eta Podemosekin; eta gainontzeko herrialdeetan ere bide hau jarraitzeko deia egin diegu berriki.

Premiazkoa da fiskalitate progresiboagoari eta zuzenagoari buruzko eztabaida planteatzea, presio fiskala sozialki aurreratuenak diren Europako herrialdeen presio fiskaletik hurbilago egon dadin. Garapen ekonomiko eta sozialerako ezinbesteko tresna den fiskalitate berri horrek alderdi berritzaileak txertatu behar ditu, hala nola fiskalitate berdea, gaur egun kontuan hartzen ez direnak.

Udalek fiskalitate eredia zehazteko eskumenik ez badute ere, ordenantza fiskalen bidez zergapetze progresibo eta justuago bat aplikatzeko ahalmena dute (ikus 2025 ordenantza fiskalen zirkularra) eta benetako apustua egin behar dugu udaletan hau aplikatu dadin. Era berean, udalean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak aldarrikatzen duen 1.400 euroko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata bermatu beharra dugu udalen menpeko lanpostu guztietan, zuzen edo zeharka kontratatuak izan.

2.1.4 **Gizarte babeserako sistemak**

Azken hamarkadetan, eta batez ere, 2008ko krisiaz geroztik, desberdintasun sozialak neurri-gabe areagotu dira. Gure babes sisteman artatutako pertsonen artean probreziatik irteten ez ziren pertsonen pobrezia-atalasarekiko distantzia gero eta handiagoa da. Tendentzia hau azken hilabeteetako prezioen garestitzeagatik izugarri areagotu da. Oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak dituzten pertsonen kopurua gora doa, baita haur pobrezia zein oinordetzan jasotako pobrezia; eta seme-alabak izatea pobrezia faktorea dela diote azterketek.

Krisi egoera honetan, dualizazio sozialak gizarte kohesioa hausten du eta, gainera, baldintza okerragoetan jartzen gaitu egin beharreko trantsizioei begira. Etorkizuna haustura sozialik gabekoa izan dadin babes kolektiborako mekanismoak indartu beharra dago.

Ekimen posibleak:

- * Ongizate politika eta inbertsioak handitzea
- * Ordenantza fiskaletan progresibitatea
- * AESen eremu subjektiboa zabaltzea
- * Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eremu subjektiboa zabaltzea

2.2 **Zaintza**

Dualizazio soziala handitu den aldi berean, biztanleriaren zahartzeak modu esponentzian areagotu du zaintzen premia, zeina emakumeen gain gelditu den neurri oso handian. Piramide demografikoaren eboluzioa ez da, ordea, egoera honen kausa bakarra, sare komunitarioen

ahultzeak eta politika neoliberal pribatizatzaileak tarteko. Gaur, gero eta pisu gehiago duten zaintza lanak familia eremuan gelditzen dira hein handian, eta inoiz baino jende gehiago bizi da bakardadean, bizitza sozial eta harreman afektibo osasuntsuak izatetik urrun, horrek dituen ondorio guztiakin.

Ekimen posibleak:

- * Zaintza diagnostikoa
- * Auzozaintza proiektua
- * Etxez etxeko zerbitzuaren unibertsalizazioa
- * Etxez etxeko langileen lan baldintzen hobetzea
- * Zaintzaileen zaintza plana
- * Zaintzaileentzako udal babes plana
- * Zaintza kontratazio klausulak

2.3. **Trantsizio ekosozialaren erronka: energia trantsizioa eta elikadura burujabetza**

Klima aldaketak ezaugarritzen duen aroa bizi dugu, hamarkada honetan hartzen ditugun erabakiek baldintzatuko dituzte datozen hamarkadetako bizi baldintzak, trantsizio ekosozialari ekin behar diogu lehentasunez rol aktiboa jokatuz. Larrialdi klimatikoari aurre egiteko politiken eremua oso zabala da, eta besteak beste, trantsizio energetikoan eta elikadura burujabetzan jarri nahi dugu begirada.

EH Bilduren Trantsizio Energetikoaren proposamena autosufizientzia konektatua oinarritzen da, eta bertan jasotzen dira garatu beharreko politiken zutoinak: energiaren kontsumoaren murriztea, erregai fosilen kontsumoa mugatzea, energia berriztagarrien autokontsumoa (energia komunitate lokalak) eta energia berriztagarrien ekoizpena.

Elikadura burujabetza da trantsizio ekosozialaren beste adarretariko bat. Elikadura menpeko-tasuna da herri gisa dugun zaugarritasun handienetako bat. Erkidego Autonomoan kontsumitzen ditugun elikagaiek, bataz beste, 3.000 kilometro egiten dituzte platerera iritsi orduko, elikadura subiranotasuna ez da %5era iristen. Nafarroan, 2007tik 2020ra, 21.000 nekazal hektarea desagertu dira. Nekazaritza intentsiboak eta elikagaiak munduko mutur batetik bestera garraiatzeak esplotazioa, deforestazioa eta lorratz ekologiko jasanezinaz gain, tokian tokiko lurra eta ondare naturalaren gutxiespena eragiten du.

Udaletan ekimen asko bultzatu ditugu arlo honetan, bai alkatetzan zein oposizioan egon. Ekimen eta proiektu hauek biderkatu behar ditugu datozen bi urteetan, energia berriztagarrien komunitateen sorkuntzari eta hauen saretzeari lehentasuna emanez. Herri guztietan energia komunitate bat sortzeko erronka dugu legegintzaldia bukatu baino lehen.

Ekimen posibleak:

- * Energia komunitateen sorrera
- * Energia kontsumo publikoa murrizteko plana
- * Berriztagarrietan inbertsio publikoa
- * Argindar berriztagarriaren kontratazioa
- * Hondakinen murriztea – prebentzioa
- * Kale hondakinen gaikako bilketa
- * Autokonposta eta auzokonposta
- * Ekitaldietan hondakinak murrizteko plana
- * Elikagai soberakinen plana
- * Zaborren tasetan bereizte hobariak
- * Birziklapen – truke – berrerabilpen ekimen eta proiektuak
- * Jangela kolektiboak gertuko produktuez hornitzea
- * Ekitaldiak bertako produktuez hornitzea
- * Tokiko produktuen salmenta gunea
- * Tokiko produktuen azoka
- * Lur bankuen sortzea
- * Klima aldaketara egokitzeko plana
- * Baso publikoetan hostozabalen landaketa
- * Baso publikoak eskuratzea
- * Hiri espazio berdeak sortzea
- * Mugikortasun plana

- * Fiskalitate berdea
- * Uraren kontsumo eta erabileraren inguruko politikak

3. **Identitate kultural eta nazionala**

Euskal identitate kultural eta nazionalak azken hamarkadan eman duen lausotze prozesu nabarmena iraultzeak udalgintzan dugun lan eremu nagusienetarikoa izan behar du. Azken hamarkadan eman den kultur transmisioaren eta euskararen erabileraren atzerakadak, gure identitate nazionalaren apaltzean eragin handia izan du. Lehen lerroa ekarri behar dugun problematika da.

Ekimen posibleak:

- * Kultur egoeraren diagnostikoa
- * UEMA kide egin
- * Administrazio funtzionamendua euskalduntzeko plana
- * Hezkuntza mahaiaren sorrera
- * Haurren aisialdia euskara hutsean
- * Eskolaz kanpokoan eskaintza bateratua
- * Kultur agenda bateratua
- * Geuretik Sortuak-en parte hartzea
- * Kultur bilgunea eta kultur bilguneen sarea

4. **Gobernantza komunitarioa: ezberdinen arteko harremanak sendotu eta aliantzak eraiki**

Udalgintza herrigilearen lan ildoan sakondu asmoz, gure helburua herri proiektua eraikitzea da, herritarren artean, herritarrak ahaldunduz eta lanketa honek aurrekontuetan ere isla izan behar du.

Gure ekimenez, eskuineko alderdiak ere parte hartzearen norabidean urrats sinboliko batzuk bederen ematera behartuta ikusi dute beren burua. Hala ere, parte hartzea ibilmolde eta lan estilo estrukturala bilakatu behar dugu eta ez marketing kanpaina soilak. Itxurakeria eta herrita-

rreren parte hartzearen aldeko apustu irmoaren arteko desberdintasunak agerian utzi behar ditugu.

Haratago, EH Bilduk parte hartzearen aldeko apustua ez ezik, gobernantza kooperatiboa du aldarri eta egiteko modu. Gobernatzeko modu bertikal eta isolatuetatik aldendu, eta gobernantza molde irekiak eraiki behar ditu, eragile politiko, sozial, ekonomiko eta herritarrekin batera herri proiektu zabalak eraikitzeko.

Modu honetan, udaletan edo gainontzeko tokiko erakundeetan gobernu ardurak baditugu, aurrekontuen lanketa zabaldu egingo dugu. Zabaltze hau ez da mugatuko partida zehatzak herritarren bozketa bidez edo prozesu parte hartzaileen bidez erabakitzera, baizik eta helburua gobernu taldetik haragoko eragile politiko, sozial, ekonomiko eta herritarrekin lanketa bateratuak egiteko aukerak esploratuko ditugu, hauek aurrekontuen lanketara biltzeko helburuarekin.

Gobernu ardurarik ez dugun instituzioetan erabakitzeko ahalmen murriztagoa dugun heinean gure helburua dokumentu honetan azaldu den ildotik aurrekontuetan eragitea izango da. Proposamen eraikitzaileak egingo ditugu: anbizioaz eta errealismoaz jositako proposamenak. Anbizioz, herri eraldaketa bultzatu nahi dugulako, politika publikoetan herritarren bizitza hobetzeko urrats esanguratsuak ematea dugulako helburu; errealismoz, neurri egingarriak proposatzeak alternatiba gisa sendotzen gaituelako, eta gure sinesgarritasuna indartzen duelako. Helburua ez da akordioak erdiestea, helburua EH Bilduren proiektu politikoan urratsak ematea da, baina aurrekontuen lanketak aukera ematen du harremanak sendotu, aliantzak eraiki eta EH Bilduren proiektu politikoa indartzeko.

Edozein kasutan bi ohar:

Lehena, aurrekontuak eta aurrekontuetan indar politiko ezberdinen artean sortzen diren harreman eta aliantzak hasiera hasieratik eskualdeko arduradunekin landu behar dira. Erabakiak hartzerako orduan hainbat elementu kontuan izatea behar beharrezkoa baita, besteak beste, estrategia politiko orokorra eta indar politikoaren artean maila ezberdinetan ditugun harremanak.

Bigarrena, arestian aipatu bezala, aurrekontuak ez dira kudeaketa hutseko tresna, ekimen politikoa baizik. Bai politika eraldatzaileak eragiteko, bai harreman sozial eta politikoak eraikitzeko eta baita ere borroka ideologikoa egiteko. Zentzu honetan, aurrekontuen lanketari plan komunikatiboa ere atxiki beharra dugu. Gure herri proiektua sozializatzeko, babesa bilatzeko.

III. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko beharra

Garrantzizkoa iruditzen zaigu aurrekontuen eta udal arauetan genero ikuspegia txertatzea. Horregatik, ordenantza fiskaletan esaten genuena dakarkigu zirkular honetara ere. Izan ere, askotan pentsatu izan da aurrekontuek jasotzen dituzten diru-sarrerak eta gastuak zenbaki hutsak direla eta, beraz, ez dutela generorik.

Urteak dira Genero ikuspegia txertatuta duten Aurrekontuen ideia zabaldu dela eremu ezberdinetatik. Alde batetik, arlo akademikotik, Ekonomia Feminista lantzen dutenek tresna ezberdinak eskaini dituzte aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzeko. Bestetik, Hego Euskal Herriko erakunde nagusiek (Legebiltzarrek, Nafar Gobernuak, Foru Aldundiek, hiriburuetako udalek,...) aurrekontuei Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazio Txostena atxikitzen diete, baina hor gertatzen da genero-ikuspegiaren txertaketa aurrekontuetan. Esan beharra dago, kasu gehienetan, gastuen azterketa egin izan ohi dela, eta oso gutxitan, diru-sarreraren azterketa. Are gehiago, ez da aurrekontuak exekutatu ondoren izandako benetako eragina aztertzen.

Horrelako diferentziak detektatzeko sortu ziren Genero Eraginaren Aurretiazko Txostenak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legeak jaso zuen, lehen aldiz, ebaluazio hori egiteko beharra. Iazko martxoan, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Bere 20. artikulua horrela dio:

1. Arau bat egiteko unean, EAEko administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute proposamen horrek nolako inpaktua izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran. Horretarako, aztertu behar du ea arauan proiektatu den jarduerak ondorio positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazteko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.
2. Egindako genero-inpaktuaren ebaluazioaren arabera, administrazio-arauaren proiektuan honelako neurriak sartu behar dira: batetik, arau edo proiektu horiek emakumeen eta gizonen egoeran sor dezaketen eragin negatiboa indargabetzeko neurriak, eta, bestetik, hautemandako desberdinkeriak desagerrarazteko edo gutxitzeko eta sexuen berdintasuna sustatzeko neurriak.
3. EAEko administrazio publikoek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den organo edo erakundeak proposatuta, arauak edo gidalerroak onartu behar dituzte, adierazteko, batetik, zer urrats egin behar diren generoaren arabera inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzeko, eta, bestetik, zer

administrazio-arau dauden salbuetsita aurretiazko ebaluazio hori eta artikulua honetan jasotzen diren gainerako tramiteak egin behar izatetik.

Bestalde, 1/2023 Lege Dekretuaren 20. artikuluan 3 puntuan aipatzen den “EAEko administrazio publikoek ... arauak edo gidalerroak onartu behar dituzte, adierazteko, batetik, zer urrats egin behar diren generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzeko ...” gauzatzeko urratsak ez dira eman EAEko administrazio publikoen aldetik. Ezagutzen dugun bakarra, EUDELEko BERDINSAREAK eta EMAKUNDEK, 2018ko maiatzean argitaratu zuten [“Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa. Toki Erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida”](#) da, Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen baitan hainbat udalen (Elorrio, Galdakao, Ermua, Donostia, Uribe-Kostako Mankomunitatea) parte-hartze aktiboarekin landutakoa. Baina badirudi udaletan ez denik aplikatzen ari.

Aipatutako EAEko Legearen zentzu berdinean arautzen du Nafarroako 17/2919, apirilaren 4ko, Foru Arauak, Emakume eta Gizonezkoen berdintasunari buruzkoa. Honela, Nafarroako Berdintasun Institutuak egina du [“Administrazio aurrekontuetan Genero Ikuspegia”](#) txertatzeko dokumentu hau.

Halaber, Bartzelonako Udala esperientzia ezberdinak lantzen ari da zergen eta aurrekontuen arloan, eta 2020ko maiatzean argitaratu zuen, “Cuadernos Metodológicos Feministas” bildumaren barruan honako hau: [“Evaluación de impacto de género de política económica: presupuesto y fiscalidad municipales”](#).

Iv. Arau fiskalei aipamen berezia.

2020, 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietan arau fiskalak ez dira indarrean egon, baina 2024rako jada europar araudiaren ondorioz berriz ere indarrean daude. Honek esan nahi du, 2024ko ekitaldiari gastu muga eta gastu araua aplikatuko zaizkiela, hau da aurrekontuen egonkortasun araudia berriz ere aplikatuko dela, eta beraz, defizita, zorpetzea eta aurrekontuen igoera mugatu egingo direla. [Dokumentu](#) honetan azalpen zabalagoa jasotzen da.

Jakina denez, 2025erako gastu muga onartu gabe dago. Urrian zehar Kongresuan berriz eztabaidatuko bada ere, gaur gaurkoz ez dakigu onartuko den edo ez. Edozein kasutan, 2025eko ekitaldiak gastu muga izango duela jakina da, eta beraz, aurrekontuak lantzerakoan aurreikusi beharra dago. Ministro Kontseiluaren proposamena tokiko entitateei % 3,2eko muga ezartzea da.